



Petronor enpresaren Muskizko instalazioen irudi bat. LUIS TEJIDO / EFE

Pradalesek esan du Petronorrek ez zituela «egoki» komunikatu isuriak

- Eusko Jaurlaritzako lehendakariak esan du ikertzen ari direla enpresak arau hausteren bat egin ote zuen.
- Oposizioak kargu hartu dio neurriak «berandu» hartu zituelako.

Aitor Biain

Gertatutakoari garrantzia kendu gabe, baina alarma eragite-tik urrun. Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren arabera, horrela aztertu behar dira Petronorrek Muskizen (Bizkaia) dituen instalazioetan joan den astean izandako istripuak. Imanol Pradalesek adierazi du ulertzen duela findegian izandako isuriek bizilagunengan «zinegon» eragin izana, baina ziurtatu du haien osasuna eta segurtasuna ez zela arriskuan egon. Dena den, aitortu du enpresak larrialdi zerbitzuekin izan zuen komunikazioa ez zela «egokia» izan, eta aurre-

tratu du gertatutakoa ikertzen ari direla arau hausteren bat egon zen argitzeko.

Eusko Legebiltzarrean kontrolerako osoko bilkura egin zuten atzo, eta oposizioko taldeek azalpenak eskatu zituzten Jaurlaritzari Petronorren izandako bentzeno isuriei buruz. EH Bildu, Sumar eta PP kezkatuta agertu ziren, eta kargua hartu zioten Jaurlaritzari, gertatutakoa larria izan zela iritzi baitiote. EH Bilduren iritziak, esaterako, Jaurlaritzak «berandu eta gaizki» erantzun zuten. Amancay Villalba legebiltzarkideak gogorarazi zuen isuriak goizean gertatu zirela, eta gobernuak ez zela neurririk hartu iluntzera arte. «Atzerapena ez da

onargarria, ezta informazio falta ere», salatu zituen.

Bada, gertatutakoaren inguruko «ikereta sakona» egiteko eskatu zion Jaurlaritzari, eta berriz ez gertatzeko neurriak hartzeko. Izan ere, Villalbak esan zuen halako istripuak «ohikoak» direla Petronorren instalazioetan: «Zerbaitek huts egin du modu oso larrian. Erantzukizuna Petronorre-na da, baina baita gobernuarena ere, hura baita ikuskapenak egin, airearen kalitatea kontrolatu eta herritarren osasuna babesteko betebeharra duena».

Jon Hernandez legebiltzarkideak ere (Sumar) ohartarazi zuen joan den astean gertatutakoa ez dela bakana izan, eta gogorarazi findegian inguruan bizi direnek urteak daramatatela neurri eske: «Ezin da normalizatu. Industrialdeak ezin dira izan herritarren-tzat arriskutsuak diren eremuak». Informazio falta salatu zuen, eta adierazi istripuak osasun arazo larri bat eragin zuela.

Laura Garrido legebiltzarkideak ere (PP) «berandu» aritu izana txarretsi zion Jaurlaritzari, istripuaren berri izan eta kaute-lazko neurriak hartzerako «hamar ordu» igaro zirelako.

«Gordaldi puntualak» Oposizioak egindako kritikei Pradalesek erantzun zion Jaurlaritzak «arduraz» jokatu zuela, eta istripuaren berri izan eta berehala erreakzionatu zuela. Aitortu zuen otsailaren 26tik martxoak 2ra gehieneko emisio baimen-dua gainditu zutela hainbat isuririk, baina zehaztu zuen «gordaldi puntualak» izan zirela eta egoera «azkar» etorri zela bere onera.

Horregatik ez zuten larrialdirik aktibatuta, adierazi zuenez. Jakinarazi zuen Industria, Osasun eta Segurtasun sailak etengabe aztertu zutela egoera, ingurumen kontrolerako neurketa sistemak erabilita. Eta txalotu egin zuen Muskizko (Bizkaia) herritarren jarrera, «erreakzio eredu-garria» izan zutelako. Hala ere, aitortu zuen enpresak larrialdi zerbitzuekin eta erakundeekin izan zuen koordinazioa ez zela egokia izan. Edozein moduz, nabarmendu zuen Jaurlaritzaren lanean ari dela, «beldurra zabaldu» ordez. Bate-tik, gertatutakoa ikertzeko eskatu zion Petronorri, neurriak hartzeko, eta egoerari aurre egiteko proposamenak aurkezteko. Eta, bestetik, iragarri zuen lantalde bat jarri duela martxan, larrialdi egoeretako prozedurak berri-kusteko eta halakoetan hobeto erantzuteko.

Era berean, Mikel Jauregi Industria sailburuak esan zuen azken belaunaldiko neurgailu berri bat jarriko dutela Petronorrek plantaren ondoan, airearen kalitatea neurtzeko. Gaur egun, halako lau daude inguruan. ●

«Zerbaitek huts egin du modu oso larrian. Erantzukizuna Petronorre-na da, baina baita gobernuarena ere»

AMANCAY VILLALBA
EH Bilduko legebiltzarkidea

Labrazako parke eolikoaren aurkako erasoak, ikerketapean

Peru Amorrortu Barrenetxea

Hogei urtean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eraikiko den lehen parke eolikoa izango da Oiongo Labraza herrian (Araba) egitekoak diren azpiegitura. Instituzioen onespina jaso badu ere, herritarren eta zenbait elkarte ekologistaren aurkako jarrera piztu du parke eolikoak hasieratik, izango lukeen inpaktu ekologikoagatik. Oraintxe, proiektuari buruzko bi administrazio errekurtsio daude EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren eskuetan. Aurreko urteko azaroan hasitako lanek, ordea, aurrera jarraitu dute. Alta, atzo Ertzaintzak jakinarazi zuen lan horietan ari diren bi makinaren aurkako eraso bat salatu dutela, eta gertatutakoa ikertzen ari direla.

Asteazkenean jaso zuen salaketa Ertzaintzak. Salaketaren arabera, parke eolikoaren eraikuntzan diharduten bi makinari eraso egin diete. Ertzaintzak ez du zehaztu makina horiek nolako kaltea izan duten, baina ikerketa abian dela adierazi dute erakundeko iturriek. Aizendarr sozietateak kudeatzen ditu Labrazako parkea eraikitzeko lanak; Iberdrola enpresak Enpresaren %60 eta Energiaren Euskal Erakundeak Enpresaren %40 osatzen dute sozietate hori. EFE albiste egoeretako prozedurak berri-kusteko eta halakoetan hobeto erantzuteko.

Hogei urte atzera

Badirudi, urte askoren ostean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan berriro zentral eoliko bat eraikiko dela, eta Labrazakoa izango dela hori. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak 2006an eman zuen azken aldiz parke eoliko bat eraikitzeko baimena, eta ordutik ez da gehiago eraiki. Hala, Araban ia hogei urtean egingo den lehen parke eolikoa izango da Labrazakoa. Behin Eusko Jaurlaritzaren baimen guztiak izanda, Oiongo Udalak eman behar ditu hurrengo baimenak, baina duela gutxi udalak negoziatzeko eskatu zion Aizendarrri, herritarrentzako «eredurik onuragarriena» lor-tzeko. ●